

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2268

AGINDUA, 2020ko maiatzaren 5ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dei egiten baitzaie EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxeei, hezkidetza eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra modu global, sistematiko eta integratuan lantzeko jarduera-proiektuak egitea eskatzeko, 2020-2021 eta 2021-2022 ikasturteetarako (L2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunaren arreta).

Hezkuntza Sailak eraldaketa-prozesu bat sustatu nahi du, eskola-eredu mistotik hezkidetzako eskola-eredura, emakumeen aurkako indarkeria eta sexismoa sorburu duen edozein indarkeria-adierazpen prebenitzen lagunduko duena. Horretarako, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarria betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistema hobetzeko plana onartzen da; plan hori bikaintasuneranzko ekitatean oinarritzen da, eta «hezkuntza inklusiboa eta aniztasunarekiko arreta» ezartzen du bere lerro estrategikoen artean.

«Euskal hezkuntza-sistamarako hezkidetzako II. Plana, berdintasuna eta tratu ona lortzeko bidean (2019-2023)» oinarri hartuta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aukera eman nahi dio Euskal Hezkuntza Sistemari, eta, zehazki, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza etapei, hezkidetza-eskolarantz hasitako bidean urratsak ematen jarraitzeko. Plan horien helburuen artean dago: ikastetxeek beren kulturen, politiketan eta praktiketan genero-ikuspegia txerta dezaten bultzatzea, eskola-komunitateko eragileen laguntzarekin.

Emakumeen aurkako indarkeria da sexismoan eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-ezean oinarritutako sistema baten ondorio larriena. Eskolak ikasleen arteko botere-harremanak aldatzen lagundu dezake, behar diren aldaketak eginez, berdintasunean oinarritutako harremanak ziurtatzeko. Sozializazio horrek identitate-aniztasuna errespetatu behar du, eta ikasle guztien garapen pertsonala ahalbidetu, nola neskena, hala mutilena.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak helburu hori zabaltzen du, eta horretan sakontzen du; hala, 28. artikuluan hezkuntza-sistema premiatzen du hezkidetzako-eredu bat gara dezan. Zehazki, honako hau adierazten du:

Hezkuntza-politika publikoek bultzatu beharreko hezkuntza-ereduek, betiere, helburu hauek izan behar dituzte: sexuaren araberako estereotipoak eta rolak baztertuko dituen garapen integrala eskaintzea, bereizkeria mota oro baztertzea, eta generoak behartu gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatzea. Horretarako, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatuko da alor guztietan: curriculumean, antolaketan eta abarrean.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 29. artikulua ezartzen duenez, Hezkuntza Administrazioak hezkidetzako proiektuak sustatuko ditu, eta hezkidetzako-helburuak integratuko ditu hezkuntzako maila ezberdinetako jakintza-arloetako eta diziplinetako curriculumaren diseinuan eta garapenean.

Horregatik, kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. Titulua eta VII. Tituluaren III. Kapitulua –Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren

eremuko dirulaguntzak erregulatzeari buruzkoa–, bai, halaber, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako oinarritzko araudia –zeinaren bidez onesten baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua–, eta apirilaren 9ko 193/2013 Dekretua –zeinaren bidez ezartzen baita Hezkuntza Sailaren egitura organiko eta funtzionala–, abenduaren 27ko 13/2019 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko 2020ko aurrekontu orokorrak onartzen dituena, eta aplikatu daitezkeen gainerako xedapenak, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

Agindu honen xedea da EAEko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen duten itunpeko ikastetxeei dei egitea, 2020-2021 eta 2021-2022 ikasturteak barnean hartuko dituen jarduera-proiektu bat egin dezaten. Proiektu horrek ahalbidetu behar die ikastetxean lantzea hezkidetzeta eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztarra modu global, sistematiko eta integratuan.

Gehenez ere 50 ikastetxe aukeratuko dira, 2.3 artikuluan azaltzen den lurralde-banaketari jarraituz.

2. artikulua.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.– Xede hori lortzeko, oro har, 2020-2021 ikasturtean 100.000 euro bideratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partiden kargura.

2.– Hautatutako ikastetxe bakoitzari bi mila (2.000) euroko diru-ekarpena egingo zaio deialdi honetan aipatzen diren bi ikasturteetarako, irakasleak zein eskola-komunitatea trebatzeko eta proiektua koordinazio- eta zabalkunde-jardueretarako. Proiektuak bi ikasturteko iraupena badu ere, lehenengo ikasturtean egindako gastuak soilik hartuko dira aintzat.

3.– Honako lurralde-banaketa honen arabera aukeratuko dira proiektuak:

Lurraldea	Guztizkoa
Araba	8
Bizkaia	25
Gipuzkoa	17
Orotara	50

4.– Hala ere, lurraldeen araberako banaketa aldatu ahal izango da, baldin eta aukeratutako eskabideekin ez bada lortzen lurralde horietakoren baterako aurreikusitako plaza-kopurua.

5.– Hezkuntza Sailak, diru-esleipenaz gain, deialdi honen xedeari buruzko prestakuntza eskainiko du.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Agindu honetan aipatzen diren laguntzak EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxeei esleituko zaizkie.

4. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen xedea izango da bi ikasturteko proiektu bat egitea, deialdi honen 11. artikuluan ezarritako irizpideak betetzen dituena.

2.– Diruz lagunduko dira 2021eko uztailaren 1a baino lehen egindako proiektuari dagozkion gastu hauek:

a) proiektuaren zuzendaritzaren, koordinazioaren, jarraipenaren eta ebaluazioaren kostua, oro har, bai eta prestakuntza-jarduerena ere. Proiektuaren zuzendaritzari, koordinazioari, jarraipenari eta ebaluazioari egotz dakizkiekeen gastuek orduko 25 euroko muga izango dute. Irakasleen kontratazioari dagokion ordainsari-kostua ez du, inola ere, ordainketa eskuordetuak estaliko.

b) prestakuntza-jarduera emateko kostua, prestakuntza ematen duen erakundeak aurkeztutako aurrekontuaren arabera (gehenez 90 euro emango dira prestakuntza-ordu bakoitzeko), bai eta hizlariaren joan-etorriek, ostatuak edo mantenuak eragindako dietak ere, erakundeaz kanpoko denean eta prestakuntza-saio horiek beharrezkotzat jotzen direnean. Prestakuntza-jarduera hori guztiz azpikontratatu ahal izango da.

Inola ere ez dira prestakuntza-jarduerari egotz dakizkiokeen kostutzat hartuko jardueran parte hartzen duten irakasleek joan-etorriengatik edo mantenuagatik egiten dituzten gastuak.

c) beharrezko curriculum-materialaren kostua.

5. artikulua.– Betekizunak.

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan azaldutako egoeretako batean dauden erakundeak ezingo dira onuradun izan.

2.– Erakunde eskatzaileak ez du eduki behar dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen dion zigor administratibo edo penalik, ez eta dirulaguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, sexuagatiko diskriminazioaren ondoriozko lege-debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenak arautzen duen ildotik.

3.– Erakunde eskatzaileak egunean izan behar ditu indarreko xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, arauz zehaztu den bezala.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko beste laguntza edo dirulaguntza batzuen esparruan, dirulaguntza horien itzulketa- edo zehapen-prozeduraren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozedura hori amaitu egin beharko da onuradunei laguntza hauek emateko, edo, hala badagokio, ordaindu ahal izateko. Dirulaguntza horiek eman eta ordaintzen diren unean egiaztatu ahal izango da hori betetzen dela.

5.– Kanpoan geldituko dira deialdi honetako betekizunak betetzen ez dituzten proiektuak.

6.– Aurreko deialdietan finantzaketa lortu duten ikastetxeek berriz ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta parte hartu zuten deialdiko ikastaroen epea bukatu bazaie. Hau da, betiere deialdia indarrean ez badago. Gehenez ere hiru deialditan hartu ahal izango dute parte, jarduera-proiektuak egiteko lehenengo deialditik aurrera kontaktzen hasita, 2013-2014 ikasturtean.

6. artikulua.– Betekizunak eta egiaztatzea.

1.– Dirulaguntzaren eskabidea aurkezteaz batera, eskatzaileak laguntza ematen duen organoari baimena ematen dio zuzenean egiaztatu dezan laguntzak eskatzen dituzten erakundeek

zerga-betekizunak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela; izan ere, organo kudeatzaileak automatikoki eta behar beste aldiz egiaztatuko du hori, eta ez du eskatzaileen baimenik beharko horretarako, Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua aplikatuz. Erakunde eskatzaileak berriaz egin diezaioke uko baimen horri, baina, hala eginez gero, ziurtagiria aurkeztu beharko du, Dirulaguntzei buruzko erregelamendu orokorraren 22. artikuluan azaltzen den eran.

2.– Eskarrietan aukera izango da laguntzak eskatzen dituen erakundeak berriaz adieraz dezan baimena ematen diotela organo kudeatzaileari gainerako datu edo agiri guztiak lortu edo egiaztatzeko, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoak egiaztapen, kontrol eta ikuskaritzaren alorrean dituen ahalmenak.

3.– Erantzukizunpeko adierazpen baten bidez (eskabide-orrian bertan azaltzen da), betebeharrak egiaztatuko dira:

a) Helburu bererako administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuetatik inolako dirulaguntzarik jasotzen ez aritzea.

b) Erakunde edo pertsona eskatzaileak ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen dion zigor administratibo edo penalik, ez eta dirulaguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, sexuagatiko diskriminazioaren ondoriozko lege-debekuak barnean direla, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenak arautzen duen ildotik.

c) Eskabide-orriko eta berarekin batera aurkeztutako agirietako datuak egiazkoak direla adieraztea.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo/eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzak direla-eta hasitako ezein itzulketa- edo zehapen-prozedura bukatuta egon beharko da.

e) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta edukitzea, onuradun bihurtzen diren unean eta ordainketak egiten diren unean.

f) Eskabidean eta agirietan jasotako datuak egiazkoak direla eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak betetzen dituela, eta ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan jasotako egoeraren batean.

7. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Erakunde interesdunek bitarteko elektronikoak erabiliko dituzte eskaerak, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak egiteko.

2.– Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak eta Informatika eta E-Administraziooko Plataforma Teknologikoa –Platea– onartu zuen Telekomunikazio zuzendarriaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak arautzen dute izapidetze elektronikoa.

3.– Eskabideak eta erantzukizunpeko adierazpenak elektronikoki nola egin jakiteko eta horien ereduak eskuratzeko, jo Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikora: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2020/hezkidetza-50/web01-tramite/eu>

4.– Eskabidearen izapide hauek Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren «Nire Karpeta» atalean egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Bitarteko elektronikoen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoan izapideak egiteko ordezkari bat izendatzen denean, pertsona horrek alta emanda egon beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko Ordezkarien Erregistro Elektronikoan: <https://www.euskadi.eus/>

8. artikulua.– Eskabideak eta agiriak.

1.– Erakunde eskatzaileek «Eskabidea» formulario normalizatua aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta. Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoan eskuratu ahal izango da eskabide-eredua, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/dirujaguntza/2020/hezkidetza-50/web01-tramite/eu>

2.– «Eskabidea» (I. eranskina) formulario normalizatuarekin batera, 2020-2021 eta 2021-2022 ikasturteetarako «Jarduera-proiektua» (II. eranskina) formulario normalizatua aurkeztu beharko da, eta eduki hau izango du:

I) Justifikazioa.

II) Helburu orokorrak eta helburu orokor bakoitzarekin lotura duten helburu espezifikoak 2020-2022 ikasturteetarako.

III) Helburu espezifiko bakoitzari lotutako jarduerak, haien arduradunak, denborak, jarraipenaren adierazleak eta lortutakoa zehaztuta, 2020-2021 ikasturterako, eta 2021-2022 ikasturterako aurreikuspenak.

IV) Ebaluazioa.

3.– Deialdiaren III. eranskinean, proiektua lantzeko argibideak biltzen dira.

4.– «Eskabidea» eta «Jarduera-proiektua» formulario normalizatuarekin batera, «Zuzendaritzaren ziurtagiria» formulario normalizatua ere aurkeztu beharko da (IV. eranskina).

9. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

1.– Hilabetekoa izango da eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Epea epemugako hilabetean amaituko da, argitalpena egin zen egun berean.

2.– Agiriak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/dirujaguntza/2020/hezkidetza-50/web01-tramite/eu>

3.– Erakunde eskatzaileek euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete agiriak, beraiek nahi duten eran. Prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezartzen den moduan.

4.– Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

10. artikulua.– Hautaketa-batzordea.

1.– Eskararak barematuko ditu hautaketa-batzordeak, eta hautatutako ikastetxeen zerrendak egingo ditu. Batzorde horretan honako kide hauek parte hartuko dute:

a) Hezkuntza Berriztatzeko Zerbitzuko burua edo hark izendatzen duena; batzordeburua izango da.

- b) Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunak, edo horiek eskuordetzen dituzten pertsonak.
- c) Eskola inklusiboko Berritzegune Nagusiko arduraduna (aniztasuna/generoa).
- d) Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, idazkari-lanetan jardungo dena.

2.– Hautaketa Batzordeak ikastetxeak zehaztuko ditu eta ebazpen-proposamena Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari helaraziko dio.

11. artikulua.– Dirulaguntzen bateraezintasuna.

Deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak bateraezinak dira 1. artikuluan xedatutako helburu bererako beste edozein erakunde publikok edo pribatuk eman dezakeen dirulaguntza ororekin.

12. artikulua.– Esleitzeko irizpideak.

Aurkeztutako proiektuak balioztatzean, gehienez 10 puntu emango dira, eta gutxienez 6 puntu lortu beharko dira onartuak izateko.

a) Balioztatze irizpideak:

1) Ikastetxearen ibilbidea eta premien zehaztapena (2,5 puntu, gehienez). Hauek hartuko dira kontuan:

I) Ikastetxeak jarduerak, programak eta proiektuak sustatzen, prestakuntzan eta abarretan egindako ibilbidea esparru hauetan: hezkidetzan, gizonen eta emakumeen berdintasunean, genero-indarkeriaren prebentzioan, sexu-aniztasunean, harreman afektibo-sexualetan (0,75 puntu, gehienez).

II) Eskualdeetako Berritzeguneek hezkidetzaz eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioaz eta detekzio goiztiarraz antolatutako mintegietan parte-hartzea (0,50 puntu, gehienez).

III) Premien zehaztapena (1,25 puntu, gehienez).

2) Helburu orokorrak eta helburu espezifikoak (1,25 puntu, gehienez).

3) Jarduerak (4,25 puntu, gehienez). Hauek hartuko dira kontuan:

I) Ikasleei eta irakasleei zuzendutako jarduerak, hezkidetzaren zutabe nagusiekin bat etorritik (1,50 puntu gehienez):

i) Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean.

ii) Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista.

iii) Emakumeen jakituriaren integrazioa eta haien ekarpen soziala eta historikoa.

iv) Gatazken konponketa baketsua, hezkidetzako elkarbizitzarako proiektuen bidez.

v) Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa.

vi) Espazioak ikastetxean, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak.

vii) Hezkuntza afektiboa eta sexuala berdintasunean.

viii) Emakumeen aurkako indarkeriaren.

II) Hezkidetzaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra honako dokumentu hauetan sartzeko jarduerak: proiektuak (IHP –Ikastetxearen Heziketa Proiektua–, ICP –Ikastetxearen Curriculum Proiektua– eta AJA –Antolakuntza eta Jarduera Araudia–, aniztasunari erantzuna, bizikidetzaren, eta abar), agiriak (jakinarazpenak, matrikulazioak, aktak...) eta ikastetxeko komunikazio-sistemak (puntu 1, gehienez).

III) Klaustro guztiaren prestakuntza (0,75 puntu, gehienez).

IV) Familien prestakuntza eta parte-hartzea (0,75 puntu, gehienez).

V) Komunitate- eta gizarte-eragileen prestakuntza eta parte-hartzea (0,25 puntu, gehienez).

4) Zer neurritan egokitzen den proiektua: «Euskal Hezkuntza Sistemarako Hezkidetzako II. Plana, berdintasuna eta tratua lortzeko bidean (2019-2023)» delakora, eta hezkuntza-komunitateak plana prestatzen izandako parte-hartzea (puntu 1, gehienez).

5) Ebaluazioa (puntu 1, gehienez).

b) Esleipena.

1) Lortutako puntuazioaren eta 2. artikulua 3. zatian ezarritakoaren arabera egingo da esleipena.

2) Berdinketa gertatuz gero, ikastetxeko irakasle-portzentaje handiena biltzen duen proiektuak izango du lehentasuna.

13. artikulua.– Ebazpena.

1.– Hezkuntza Berriztatze zuzendariari dagokio, hautaketa-batzordearen proposamenez, agindu honetan arautzen den deialdia ebaztea. Ebazpen horrek jasoko ditu zer erakundek jaso duen dirulaguntza, zer erakunderi ez zaion eman eta dirulaguntza ukatzeko arrazoiak.

2.– Aipatutako ebazpena gehienez sei hilabeteko epean jakinaraziko da, agindu hau argitaratu eta biharamunetik hasita. Epe hori igarota, aipatutako ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek beren eskaerak ezetsi direla ulertu ahal izango dute, hargatik eragotzi gabe Administrazioak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutakoaren arabera, espresuki ebazteko duen betebeharra.

3.– Ebazpena banaka eta elektronikoki jakinaraziko zaie pertsona interesdunei. Jakinarazpenak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikokoaren «Nire karpeta» atalean kontsultatu beharko dira.

4.– Jakinarazpena burututzat joko da pertsona interesdunak jakinarazpena jaso izana elektronikoki sinatzen duenean. Jakinarazpena bidali eta interesduna hamar egun naturaleko epean ez bada edukira sartu, jakinarazpena ezetsi duela ulertuko da, eta izapidea gauzatutzat joko. Prozedurak jarraitu egingo du, salbu eta ofizioz edo erakunde hartzaileak eskatuta egiaztatzen bada teknikoki edo materialki ezinezkoa dela sarbidea.

5.– Aurrekoa hala izanik ere, organo kudeatzaileak erakunde interesdunei jakinarazpenen abisuak bidali ahal izango dizkie, SMSak edo mezu elektronikoki igorri eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoenetara. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpen-baliorik izango.

6.– Gainera, ebazpen hori Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta EHAAn argitaratuko da, jende guztiak horren berri izan dezan.

7.– Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita.

14. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea eta justifikatzea.

1.– Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

a) Lehenengo ordainketa, dirulaguntzaren % 60, esleitutako dirulaguntza onartu eta gero egingo da.

b) Gainerakoa –dirulaguntza osoaren % 40a– «Hezkidetza – Dirulaguntzaren justifikazioa» agiria (V. eranskina) aurkeztu ondoren ordainduko da; 2021eko ekainaren 30a baino lehen aurkeztu behar da agiri hori, behar bezala beteta. Agiri hori eta dagozkion fakturak eta ordainagiriak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren egoitza elektronikoa, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2020/hezkidetza-50/web01-tramite/eu>

2.– Administrazioak laguntzak eta dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren datu-basean egon behar du erakunde onuradunak. Alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, hirugarrenen erregistro telematikora jo beharko da bide elektronikoa erabiliz; bide hori Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Sailak ematen du, helbide honetan: http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51-341/eu/edukiak/informazioa/regtelter_infor/eu_rtt/infor_rtt.html

3.– Programaren iraupena 2 ikasturtekoa den arren, gastu guztiak artikuluko 1. apartatuan ezarritako epean aurkeztu behar dira.

4.– Ikasturte bakoitzeko ekainaren 30a baino lehen, «Hezkidetza – Jarduera-proiektuak – Justifikazioa-Memoria» agiria (VI. eranskina) behar bezala beteta aurkeztuko da bitarteko elektronikoen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren egoitza elektronikoa, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2020/hezkidetza-50/web01-tramite/eu>.

15. artikulua.– Ikastetxeen betebeharrak.

1.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateginaren 50.2 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte agindu honetan araututako laguntzen erakunde onuradunek, finantzaketa publikoa dela jakinarazteko publizitate egokia emateko neurriak barne, Dirulaguntzei buruzko lege horren 18. artikuluko 3. eta 4. apartatuetan jasotakoarekin bat; horiez gain, betiere, betebeharrak bete beharko dituzte:

a) Esleitutako dirulaguntza onartzea. Ildo horretan, dirulaguntza eman zaiela jakinarazteko agiria jasotzen denetik aurrera, 10 eguneko epea izango dute erakunde onuradunek dirulaguntzari uko egiten diotela berriaz eta idatziz adierazteko; osterantzean, dirulaguntza onartu egiten dutela ulertuko da.

b) Dirulaguntza eman den xederako erabiltzea.

c) Hezkuntza Berriztatzeke Zuzendaritzaren aurrean justifikatzea betetzen direla eskakizunak eta baldintzak eta egin dela laguntza esleitzeko edo erabiltzeko arrazoi izan den jarduera.

d) Dirulaguntza eman dion Administrazioari xede bererako lortu duen beste edozein laguntzaren berri ematea, hala agintzen baitu azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikulua (1998ko urtarrilaren 19ko EHAA).

e) Dirulaguntza eman duen Administrazioak egin beharreko egiaztapen-ekintzei eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egin beharreko kontrol-ekintzei laguntza ematea, aipatutako azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan bertan adierazten denez.

2.– 2020-2021 eta 2021-2022 ikasturteetarako hezkidetza eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra ahalbidetzen duen jarduera-proiektu bat aurkeztea (jardueren kasuan, arduraduna, denborak eta ebaluazio-adierazleak 2020-2021 ikasturterako bakarrik zehaztu behar dira, eta 2021-2022 ikasturtekoak aurreikusi).

3.– Ikasturte bakoitzean, lan-plan bat eta hari dagokion memoria egitea. Agiriok ikastetxearen urteko planaren eta urteko memoriaren zati izango dira, hurrenez hurren.

4.– Ikastetxeko hezkidetzako arduraduna identifikatuta izatea. Hark horretarako ezaugarri egoiak izan beharko ditu, hala nola, egonkortasuna, ikastetxea ezagutzea, sentsibiltatea, prozesua dinamizatzeke, koordinatzeke eta gidatzeke gaitasuna, eta Sailak antolatutako eskualde-mintegian eta prestakuntza-jardueretan parte hartzea ahalbidetuko zaio. eta eginkizun hauek beteko ditu:

a) Ikastetxearen proiektua bultzatzea eta koordinatzea, emakumeen aurkako indarkeria prebentzeko eta goiz detektatzeko lana egingo duen hezkidetza-eskola baterantz joateko.

b) Proiektuan planteatutako ekintza bateratu eta sistematikoak kudeatzea eta dinamizatzea, «Euskal Hezkuntza Sistemarako Hezkidetza II. Planean, berdintasuna eta tratu ona lortzeko bidean (2019-2023) jasotako hezkidetzaren zutabe nagusiak barne hartuta».

c) Koordinaziorako eta batera-lanerako uneak, aktak, saioen edukia... ezartzea.

d) Eskola mistoa hezkidetza-eskola bihurtzeko behar den prestakuntza pedagogikoa koordinatzea.

5.– Hezkidetzako arduradunak Berritzeguneen eskualde-mintegietan parte hartuko du, eta, mintegi horietan, deialdi honetan parte hartzen duten ikastetxeak elkartu eta koordinatuko dira, eta aholkuak jasoko dituzte.

6.– Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenean (OOG) berdintasuneko ordezkaria izendatua izatea, eta Sailak ematen duen prestakuntzan parte har dezan ahalbidetzea.

7.– Berritzeguneen esku jartzea programa honen esparruan landutako materialak, hezkuntza-komunitateko gainerakoekin partekatzeke.

8.– Ikastetxeak egiten duen hezkidetza-lanari lotutako eginkizunak ikastetxeetako bizikidetzak behatokian sartzea.

9.– Tutoretza eta Orientazio Planetan genero-ikuspegia txertatzea hezkidetzaren zutabeetan oinarritutako materialen bidez, «EAEko Hezkuntza Sistemarako II. Hezkidetza Planaren esparruan, berdintasuna eta tratu ona lortzeko bidean»,

10.– Ikastetxeko hezkidetza-plana egitea edo, balego, berritzea.

11.– Eskolaz kanpoko jardueren eskaintza genero-ikuspegiarekin egiten dela sustatzea.

16. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

1.– Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak ikusten badu aurkeztutako agiriak ez daudela osorik beteta, edo nahitaezko agiri guztiak aurkezten ez badira, erakunde interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean akats hori zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteke. Epe

horretan zuzenketa egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko da; aurretik, Administrazioak eskabide horri buruzko ebazpena emango du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoarekin bat.

2.– Akatsak zuzentzeko jakinarazpena elektronikoki egingo da. Jakinarazpenak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaen «Nire Karpeta» atalean kontsultatu beharko dira.

3.– Erakunde interesdunak jakinarazpenaren jasotze-agiria elektronikoki sinatzen duenean emango da egintzat jakinarazpena.

4.– Jakinarazpena bidali eta hamar egun naturaleko epean interesduna ez bada edukira sartu, jakinarazpena ezetsizat joko da, eta izapidea gauzaturat. Prozedurak jarraitu egingo du, salbu eta ofizioz edo hartzaileak eskatuta egiaztatzen bada teknikoki edo materialki ezinezkoa izan dela edukira sartzea.

5.– Hori hala izanik ere, organo kudeatzaileak beste aukera bat ere badu: pertsona interesdunei jakinarazpenen abisuak bidaltzea, eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoaetara SMSak edo mezu elektronikoaak bidaliz. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpen-baliorik izango.

17. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

18. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetan aldaketarik gertatu bada, betiere dirulaguntzaren helburua beteta, eta, hala dagokion kasuan, beste erakunde publiko edo pribaturen batetik bestelako dirulaguntza edo laguntzak ere jaso badira, aldatu egin ahal izango da dirulaguntzak ematen dituen ebazpena. Horretarako, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak dagokion likidazio-ebazpena emango du; ebazpen horretan, emandako zenbatekoak berriz doitu dira, eta dirulaguntza horiek emateko ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuko. Hartzaileek, beraz, sobera jasotako zenbatekoak itzuli beharko dituzte. Baldintzak aldatzeak emandako dirulaguntza osorik edo partez itzuli beharra baldin badakar, 18. artikuluan araututako itzulketa-prozedura hasiko da.

19 artikulua.– Ez-betetzeak eta itzulketa-prozedura.

1.– Laguntzak jaso dituzten erakunde onuradunak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan edo Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 artikuluan aurreikusitako kasuetan sartzen badira, agindu honetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan aipatutako baldintzak edo betebeharrak betetzen ez badituzte, edo dirulaguntza ematea arrazoitu zuten baldintzak betetzen ez badituzte, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 53. artikuluan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen du, eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen ditu) ezarritakoaren arabera, erakunde onuradun horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkiote bidegabe jaso dituzten kopuruak (osorik edo partez) gehi zenbateko horiei dagozkien berandutze-interesak. Horrez gain, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren VI. tituluaren jasotako oinarritzko arauen arabera eska daitezkeen zehapenak ere jarri ahal izango zaizkie.

2.– Baldintzak betetzen ez direnean, itzulketa-prozedura lehen aipatutako hauetan xedatutakoaren arabera izango da: Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua. Dirulaguntza edo laguntzaren kontzeptua dela-eta behar ez bezala jaso diren diru-kopuruak itzultzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamendua onartzen duen abuztuaren 31ko 212/1998ko Dekretuan ezarritako modalitateei jarraituko zaie, eta itzulketa Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiaren izenean egingo da, maiatzaren 2ko 69/2007 Dekretuaren bidez sartutako aldaketak kontuan hartuta, betiere.

20. artikulua.– Datu pertsonalen babesa.

Agindu honetako prozeduretan aurkeztutako eskabideetan eta dokumentuetan jasotako datu pertsonalen tratamendua Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak egingo du, datuen tratamendua-ren «arduradun» gisa. Datu pertsonal horien tratamenduaren xede izango da deialdi hau kudeatu eta ebazpena ematea. Horren interes publikoan eta bertan parte hartzeko eskaeran oinarritzen da xede hori.

Interesdunek beren datuei buruzko irispide-eskubidea, zuzentzekoa, ezereztekoa eta transferitzekoa erabil ditzakete, bai eta datuen tratamendua mugatzekoa edo hari aurka egiteko eskubidea ere; horretarako, idazki bat bidali behar dute helbide honetara: Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza, Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta, beronen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioa-rikiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hileko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honetan aurreikusi gabeko orotarako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aplikatuko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 5a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAUR HEZKUNTZAKO, LEHEN HEZKUNTZAKO, DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO ETA BATXILERGOKO ITUNPEKO IKASTETXEEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZEN ESKABIDEA, HEZKIDETZA ETA GENERO-INDARKERIAREN PREBENTZIOA LANTZEKO JARDUERA-PROIEKTUAK EGITEKO

(*) nahitaezko eremuak

Datu pertsonalak

■ Titularra

Izena _____

Telefonoa

Identifikazio-agiria* _____

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Lehenengo abizena _____

Bigarren abizena _____

Sexua Gizona Emakumea

Identifikazio-agiria: _____

Zenbakia

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

■ Ordezkarria

Izena _____

Telefonoa

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Lehenengo abizena _____

Bigarren abizena _____

Sexua Gizona Emakumea

Identifikazio-agiria _____

Zenbakia

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Lurraldea / Probintzia _____

Jakinarazpen eta komunikazioetarako helbidea *

 Elektronikoa

Telefono mugikorra _____

Abisuak jasotzeko datuak

Doako abisu-sistema bat erabil dezakezu, helbide elektronikoaren bidezkoa edo SMS bidezkoa, jakinarazpenen edo komunikazioen bat bidaltzen dizuten bakoitzean horren berri ematen dizuna.

Abisuetarako bidea	Telefono-zenbakia/Posta elektronikoa
SMSa	
Helbide elektronikoa	

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza *

Euskara Gaztelania

Erantzukizunpeko adierazpenak

- Ez da xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzarik jasotzen ari administrazio publiko eta erakunde pribatuetatik.
- Ez du zigorrik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.
- Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik, berariaz aipatuta sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak¹.
- Egiazkoak dira eskabide honetan eta honi gehitutako agirietan adierazitako datuak.
- Ez dago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzak direla-eta hasitako ezein itzultze- edo zigor-prozeduratan.
- Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta dauzka.
- Laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak betetzen ditu, eta ez dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan jasotako egoeraren batean.

¹Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrena betez.

Lehenago aurkeztutako agiriak

Baimena ematen dut agiri hauek kontsultatzeko:

Agiriaren izena	Zer egunetan eman den	Zer organotan eman den

Baimenak

Aplikatu beharreko araudiarekin bat etorriz, prozedura honen instrukzio-organoak datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean:

- Tributu-betebeharrak egunean ordaindu izanaren datuak (EAeko foru-aldundiak edo Zerga Administrazioko Estatu Agentzia)
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekiko (GSDO) betebeharrak egunean izatearen datuak.
- HONEN KONTRA NAGO: prozedura honen instrukzio-organoak ofizioz egiaztatzearen kontra (39/2015 Legearen 28. artikulua). Kontra egonez gero, prozeduran behar diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu.
- Administrazio publikoak erkatu egin ahal izango ditu aurkeztutako datuak, bai eta beharrezko egiaztapenak egin ere.

_____, _____(a)

(Lekua)

(Eguna)

(Sinadura)

II. ERANSKINA
JARDUERA-PROIEKTUA

Ikastetxea: _____ Kodea: _____

Justifikazioa:

--

Helburu orokorrak eta helburu orokor bakoitzarekin harramantzen diren helburu espezifikoak (Ikasturteak 2020-2022):

IKASTURTEAK	Helburu orokorrak	Helburu espezifikoak
2020-2022		

Helburu espezifiko bakoitzari lotutako jarduerak, haien arduradunak, denborak, jarraipenaren adierazleak eta lortutakoa zehaztuta, 2020-2021 ikasturterako, eta 2021-2022 ikasturterako aurreikuspenak.

IKASTURTEAK	Helburu espezifikoak	Jarduerak	Arduraduna	Denboralizazioa	Jarraipen eta lorpen adierazleak
2020-2021					
2021-2022					

Ebaluazioa:

--

III. ERANSKINA

PROIEKTUA EGITEKO ARGIBIDEAK

1.– Hezkidetza eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra modu global, sistematiko eta integratuan lantzeko hezkidetza-eskolaranzko bidea egiteko, hurrengo bi ikasturteetarako ikastetxearen proposamena deskribatuko du proiektuak. Proiektuak lagungarria izan behar du ikastetxea gauzatzen ari den jarduerak eta gauzatu asmo dituenak antolatzeko.

2.– Justifikazioan honako hauek azalduko dira: genero zer arrazoi duen ikastetxeak hezkidetzari eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarrari heltzeko; zer bide egin duen esparru horretan, eta zer premia bete nahi dituen. Premia horiek ikastetxeak daukan informazioan oinarrituta zehatz daitezke (bizikidetzaren behategia, aniztasunaren arretarako plana, tutore-jarduna, familien eskariak...), eta/edo diagnostiko espezifikoko batean oinarrituta. Hala ere, batzuetan, landu behar diren esparruei buruzko diagnostiko sakonagoa hurrengo ikasturterako planteatzen diren ekintzetako bat izan daiteke. Garrantzitsua da justifikatzea zergatik ematen zaien lehentasuna gai batzuei, beste batzuen aurretik, eta zer antolaketa behar den proiektua aurrera ateratzeko.

3.– Proiektuak helburu orokor batzuk zehaztuko ditu, bi ikasturteen amaieran lortu nahi denaren adierazgarri.

4.– Helburu orokor bakoitza helburu espezifikoko batzuetan zehaztuko da. Helburu espezifikoko horietako bakoitza lantzeko, jarduerak proposatuko dira. Kasu honetan, 2020-2021 ikasturteko jarduerak soilik zehaztu behar dira, haien arduradunak, denborak eta ebaluazio-adierazleak zehaztuta, honez gain, 2021-2022 ikasturterako jarduerak aurreikusiko dira.

5.– Ebaluazioa: bi ikasturteetan zer prozesu egingo den azalduko da, proiektuan aldaketak egin behar diren ala ez jakiteko. Horretarako kontuan hartuko dira jarduera bakoitzaren ebaluazio-adierazleak. Halaber, zehaztu behar da nola ebaluatuko den proiektua bera, bi urteen amaieran.

6.– COVID-19 izurriteak eragindako egoeraren bilakaera ziurtasunez iragartzea ezinezkoa denez, beharrezkoa da ikastetxeek aurreikustea proiektua irakaskuntza ez-presentzialera nola egokitu.

2020ko ekainaren 10a, asteazkena

IV. ERANSKINA

ZUZENDARITZAREN ZIURTAGIRIA

Ikastetxea: _____

Kodea: _____ Udalerria: _____

_____, jaunak/andreak (NAN zk.: _____), ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren zuzendari eta lehendakari gisa, hau

ADIERAZTEN DU:

Ezagutzen ditut Hezkuntzako sailburuaren agindua, zeinaren bidez dei egiten baitzaie EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxeei, hezkidetzak eta, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra lantzeko proiektuak lantzea eskatzeko 2020-2021 eta 2021-2022 ikasturteetarako, eta ordezkatzeko dudak ikastetxeak proiektu horietan parte hartu nahi du.

ZIURTATZEN DU:

Ikastetxeko Zuzendaritzak konpromisoa hartzen du proiektuaren garapena antolatzeko eta irakasleen inplikazioa eta hezkuntza-komunitatearen partaidetza bultzatzeko.

Ordezkaritza Organo Gorenak,(e)(a)n egindako bilkuran onetsi du parte hartzeko eskaera, eta konpromisoa hartzen du deialdi honen esparruan garatutako proiektua abian jartzeko eta ikastetxearen urteko planetan eta urteko memorietan sartzeko.

PROIEKTUAN PARTE HARTUKO DUTEN PERTSONAK

Ikastetxeko hezkidetzako arduraduna: _____

Berdintasuneko ordezkaria Ordezkaritza Organo Gorenean (OOG). Estamentua: _____

Proiektuan parte hartuko duten irakasleen portzentajea: _____

Zuzendaria

(sinadura eta zigilua)

V. ERANSKINA

HEZKIDETZA – DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

Izartxo (*) batekin markatutako datuak nahitaez bete beharrekoak dira

*Ikastetxea: _____ *Kodea: _____

*Telefono-zenbakia: _____ *Helbide elektronikoa: _____

Kontzeptua	Data	Zenbatekoa

JARDUERA-PROIEKTUAK - PROIEKTUEN JARRAIPENA - HEZKIDETZA

VI ERANSKINA - IKASTETXEAREN BALORAZIOA

IKASTETXEKO DATUAK

Ikastetxearen izena					
Ikastetxearen kodea		Udalerria:			
Eredua/k	A	B	D	H	
Maila/k	HH	LH	BH	BATX.	Helduen Hezk.
Irakasle kopurua					
Emakumeak	Gizonak	Besteak	Guztira	Ikasle kopurua	Gela kopurua

EZAUGARRI OROKORAK

Titulua:					
Proiektua ezartzen den hezkuntza etapa/k		HH	LH	BH	BH
Parte hartzen duten ikastaldeak					
HH	LH	BH	BATX	EPA	Guztira
Proiektuan parte-hartzen duten irakasleak					
Emak.	Giz.	Besteak	Guztira		
			0		
Kordinazio-bilerak antolatu dira ikastetxean proiektua garatzeko? <input type="checkbox"/>					
Maiztasuna <input type="checkbox"/>					

PROIEKTUAREN GARAPENA

Jarduera-kopurua						Proiektuan parte-hartzen duten ikasleak				Nombramiento responsables de coeducación	
HH	LH	BH	BATX	EPA	Guztira	Neska	Mutilak	Beste	Guztira	Kordinatzailea	
										OMR	
										Batzordea	
Ordu-kredituaren erabilera											
Kordinazioa	Material-lantzea	Prestakuntza	Besteak	Guztira	Zein urtetan dago proiektua? <input type="checkbox"/>						

Actuaciones dirigidas al alumnado

- Pentsamendu kritikoa sexismoren aurrean
- Hizkeraren eta irudien erabilera sexista ekiditea
- Emakumeen jakintza eta gizadiaren garapenari egin dioten ekarpen soziala eta historikoa txertatzea
- Gatazkak modu baketsuan konpontzea bizikidetzarako proiektuen bidez
- Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa
- Ikastetxeko espazioak eta jarduera osagarriak
- Berdintasunean oinarritutako hezkuntza afektibo-sexuala
- Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egitea eta esku-hartzea

LANDUTAKO MATERIAL DIGITALAK

Lantutako material digitalak (kopurua)

Titulua	

2020ko ekainaren 10a, asteazkena

BURUTUTAKO PRESTAKUNTZA

Garatutako prestakuntza-jarduerak (kopurua)

1	Titulua	<input type="text"/>			
	Emaleak	<input type="text"/>			
		<input type="text"/>			
		<input type="text"/>			
		<input type="text"/>			
	Balorazioa	<input type="text"/>			
	Iraupena (o)	<input type="text"/>	Tokia <input type="text"/>		
	Aurrekontua	<input type="text"/>	<input type="text"/>		
	Parte-hartzailea	Emak.	Gizonak	Besteak	Guztira
	Irakasle parte-hartzailea	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
	Familia parte-hartzailea	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
	Irakasleak ez diren langile parte-hartzailea	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

2	Titulua	<input type="text"/>			
	Emaleak	<input type="text"/>			
		<input type="text"/>			
		<input type="text"/>			
		<input type="text"/>			
	Balorazioa	<input type="text"/>			
	Iraupena (o)	<input type="text"/>	Tokia <input type="text"/>		
	Aurrekontua	<input type="text"/>	<input type="text"/>		
	Parte-hartzailea	Emak.	Gizonak	Besteak	Guztira
	Irakasle parte-hartzailea	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
	Familia parte-hartzailea	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
	Irakasleak ez diren langile parte-hartzailea	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

PROIEKTUAREN BALORAZIOA

Proiektuaren baitako helburu edota ekintzen betetze maila	<input type="text"/>
Praktikak klaustroan partekatu dira	<input type="text"/>

Proiektuaren alderdi esanguratsuak

Proiektuak hezkuntza-komunitatean izan duen inplikazioa deskribatu

Nolako jarraipena izango du proiektuak datorren ikasturtean

Memoriaren dokumentazio osagarria igo (aukerakoa)